

Soraluzeko Hamabostekaria

44. alea 2002ko martxoaren 1a



# Bilpilean



## 2.002rako aurrekontuak onartu dira



**Multi  
ESKAINTZAK  
MULTIOPTICAS**

Ba al dakizu zer dagoen  
begirada eder baten atzean?...  
Eta aurrean?

BONARDI  
AIREKO  
ARMAZOI  
BERRIAK  
**49** €  
8.153 nta.



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88



EIBAR  
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA  
Tel. 943 51 78 11

**MULTIOPTICAS**

\*Eskaintza baldintza 2002-03/29 artz.



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**



**GOL, S.A. Industriak**

**Sagar Erreka, 19 45 PK**

**20590 SORALUZE**

**Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>**

# Pil bazkide txokoa

ZOZKETA ZOZKETA ZOZKETA  
ZOZKETA ZOZKETA ZOZKETA  
ZOZKETA ZOZKETA ZOZKETA

Ale honetan

**PIL KAMISETA BAT**  
zozketatuko dugu.

ZOZKETA ZOZKETA ZOZKETA  
ZOZKETA ZOZKETA ZOZKETA  
ZOZKETA ZOZKETA ZOZKETA

**Sagardotegira duan juango diranak:**

54. Bazkidia: Xuban Catalan eta 26.bazkidia: Ane Larreategi.  
(Sarituak zozketa bidez aukeratu dira)

Bazkidekin berbetan



Mertxe Balzola

Pepita Aranberri

Karmen Aranberri

**Zergaittik egin zarie Pil Pileaneko bazkide?**

Herriko gauza bat dalako, ur urrekua eta euskerian aldeku gainera. Lotsia emoten zoskun aldizkarixa hartu eta bazkide egin barik egotiak.

**Zer pentsatzen jatzue aldizkarixa?**

Oso ondo. Desiatzen egoten gara ailegatzeko. Oin gainera hamabostero, aktualidade gehixao.

**Inguruko herri aldizkariren bat jasotzen dozue?**

Bai, Berrigara ekartzen dau hileru, Fernandok (Pepitan gizonak).

**Edarra zeguan kafia eh! eta pastak hobiak.**

**Eskerrikasko hirukote, hain ondo hartziarren.**



## Plaentxia, gaur

DOMENTX UZIN

Egun hauetan suertatu zait Iruñean egonaldi bat bizi izatea eta kontu asko izan ditut buruan. Gaztelu plazan obretan dihardute eta dakizuenez, aztarna ugari azaldu dira. Handik zehar ibili naizenetan, zerbaitek eman dit atenzioa; aldioro aurkitu dut norbait antziñako eraikuntza aztarnei begira-begira, denboran atzera egin nahi izango balu bezala. Gainera, lo egiten dudana pentsioa XVIII. mendeko etxe ikusgarri eta zahar bat da. Eta irudimena martxan jartzen dut beste garai batzuetara bidean eta sentitu dezaket nonbaitetik datorrela dena eta galdetzen diot neure buruari nik baino lehenago zenbat begik ikusiko ote zuten nik orain inguruan dudana edo lehen zegoena. Eta gero klasean galdetzen didate “¿de donde eres?” (hizkuntzarena beste gai bat da) eta ez dakit zenbagarren aldiz, erantzuten dut, “si, de Soraluze, entre Eibar y Bergara”.

Askotan pentsatu izan dut, gutxi direla gure herri honetan denboraren zirrara hori sentitzeko aukerak, eta nahiko kontzientzia historiko pobrea dugula. Hor ditugu etxeak, kaleak, harresiak, aztarnak (mendikoak ahaztu gabe), eta noski, dokumentu historikoak; baina ez ditugu apreziatzen. Modernitateak ez dauka zetan izan iraganarekiko haustura bat, integrazio aberats bat baizik. Eta gaur egun badirudi asko balio gabetzen direla Teknologia-Ekonomia-Industriaren eskema eta Denbora Kapitalistatik at geratzen diren errealitateak, atzerapauso bezala kontsideratuak. Kontuz! gu nor garen eta munduan non gauden ez dute telebistak eta instituzioek esaten, ezta multinazionalak ere (demagogia gabe); Naturaren parte gara.

Gure Soraluze aldaketa bizian dago, eta garai hauek SUNTSIPEN garaiak diren arren, (hola gertatu da askotan Plazentzian), SORMEN garaiak ere izan badira eta aukera paregabea ikusten dut gure herriari buruzko kontzientzia sendotuz, sormen hori indartzeko; hau ez dadila bihurtu giro urbano suzedaneo bat, baizik giro herrikoi kontzientea, (korronte abanguardistak barne, noski, baina gugandik pasatuta).

Ez gara bizi bakarrik dirua irabazi eta lasai gastatuz bizitzeko, hau bitartekari bat da, IZATEKO BIZI gara, SORTZEKO, Artearen (Artisautza barne) eta kirolen bitartez edertasunera, poztasunera eta zorionera hurbiltzeko, gure burua kultibatuzeko (hortik dator kultura), eta noski, OSPATZEKO.

Ez gaitezen kultura "Globalean" guztiz urtu! Merezi du, ez duzue uste?

## Telegrapak

Karakate-Jeitsiera apostua antolatu dabe. STOP. zegaittik ez igoeria?. STOP. jokalarixak zeintzuk diran jakinda, ez da harritzekua jeitsieria izatia. STOP. Maisuen etxietan okupazio ahalegina izan da. STOP. Ah bai eh? Len be okupa gutxi bizi da ba hor!. STOP. Santa Anan, al loro plorete!. STOP. Ia hormia gainera jauzi ta lurpeko zakarrontzixetan amaittu bihar daben baten batek. STOP. Arrate irratixan korrespontsal berrixa. STOP. zelan ez, betikua, astunagua da. STOP. hola igoko dau audientzia Arrate Irratixak, bai, bai. STOP. Plaentxiako kirolarixak Eusko Label dira. STOP. dana irabazten dabe!. STOP. eta ez dabe Juanitok moduan tranparik egitten .STOP. Amodio gutunen lehiaketia antolatu dau Pil Pileanek. STOP. bialdizue zeoze artaburuok. STOP. Hau da BOOMA!. STOP. zer pasatzen da zorion agurrekin. STOP. danak urte hasieran jaixo zarie ala?. STOP. Udalak onartu dittu aurrekontuak. STOP. zelako eztabaida gure dirulaguntzarekin eh!. STOP. arrazoia, “hirugarren mundua” hola egonda... ta gu euskeria bultzatzen. STOP. Agur eta eskerrikasko! eta muxu bat! irakurle maite!



Argitaratzailea:

Pil Pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri  
( 943751304 tel. )

Banaketa: Pil Pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. Azala: Aitor Madrid  
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid I.Z.K.-a:  
G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



## Non zer?

Ataia.....	3
Zerbitzuak.....	4
Iritzia.....	5
Zer berri?.....	6 / 7
Erreportaia.....	8 / 9
Kutura.....	10
Kirola.....	11
Kale kantalian.....	12
Kontuak kontu.....	13 / 14

2.002.urterako aurrekontuak onartu ditu Udal batzarrak.

## Zorion agurrak



**Igor Claver**  
Zorionak txikarron!  
Jarraitu beti bezain  
ipurterre jatorra izaten.  
Kuadrilakuak.



**Oihane Vila**  
Zorionak!!!  
2.002 - 3 - 9  
Muxu haundi bat eta  
beti bezela jarraitu.  
Familixiaren partez



**Koldo Etxaniz, Marga, Ane Aizpurua**  
Zorionak!!!!  
2002.-2 -28, 2002.- 2 - 27 eta 2002.-2-27  
Orbeatarren klana badoia poliki-poliki aurrera.  
Zorionak hiruroi!!  
Etxekuen partez.



**Aitor Unamuno**  
Zorionak bisiesto!  
Espabillaua haiz  
gero!  
7,5urte bakarrik eta  
lanian, nobixiak...n



**Beroska Zarobe**  
Zorionak!!  
zoiaun, zoiaun.  
urte bat gehixao !  
Kuadrilakoak.



**Ainhoa Velazquez**  
Zorionak!  
Prezioxoa. Ia baz-  
kaltzera gonbidatzen  
gaituzun.  
Etxekuen partez.



**Oskar Migel**  
Zorionak!!!  
Golak futboleant  
bakarrik ez. Bada  
ordua azken plana  
martxan jartzeko.  
Lagunak



**Eneko Arizaga**  
Zorionak!  
2002 - 3 - 3  
Etxe deabrutxoa  
haunditzen hoia.  
Formaldu hari!!  
Etxekuen partez.



**Ana Isabel Uribe**  
Zorionak!  
2002 - 3 - 8  
Karnabaletako ama  
martxosienari.  
Etxekuen eta Pil-  
Pilekuen partez.



**Beatriz Deza eta Omar Rascon**  
Zorionak!!!!  
2002 - 2 - 22 eta  
2002 - 1 - 17  
Jarraitu txintxuak izaten.  
Etxekuen partez.

**Jose Vicente Blanco**  
Zorionak !  
Herriko itugin gogor  
eta juergistienari. Segi  
orain arte bezain oker.  
Kuadrilakuak.



**Xabier Errazu**  
Zorionak !  
Berandu baina segu-  
ru. Bada ordua etxian  
sartzeko. Formaldu!!!  
Kuadrilakuak.



**Miren Urtaza**  
Zorionak !!!!  
Urte askotarako eta  
horrela jarraitzeko  
esanez.  
Etxekuak.

## Gutunak

Soraluzeko alkate jaunari

Alkate Jaun agurgarria:

Zuregana zuzentzen naiz bere lana asko eskertzen diogun soraluzetar bati berri eman eta eskari bat egiteko.

Droga arazoak direla eta alaba bat dauka Quiton (Ekuadorren) atxilotuta. Kartzelako baldintzak penagarriak dira eta hainbat gobernuz kanpoko erakundetara (ONG) jo dugu, ea norbaitek eman diezaiokeen behar duen laguntza.

Horrela, Quitoko "Misioneras Dominicanas del Rosario"koengana jo genuen eta han EVA ARISTIMUÑO lekai-mearekin jarri ginen harremanetan, zeinek, soraluzetarra zela eta gure alabari laguntzeko ahal zuen guztia egingo zuela esan zigun; izan ere, Eva Aristimuño sarri joaten baita kartzelara bertako preso laguntzera.

Askok eskertzen diogu Evari gure alaba espetxeratuta dagoen denbora laburrean egin duen lana.

Sakrifizio guztiak Jainkoaren izenean eta inongo interesik gabe egiten dituela dakigun arren, nolabait eskertzeko soraluzetar guztiei jakinarazi nahiko genieke zelako herritarra duten. Familiaren helbidea, herriko egunkari edo aldizkariaren bat... eskeini geniezaiokeen edozein berri eskuratu nahi genuke.

Ulertu diguzulakoan gaude eta zure laguntza edo eskertuko genizuke.

Rubí (Bartzelona),  
2002ko urtarrilaren 5a  
Albert Roma eta Maria Monros  
(Emilitak helarazi digu)

Emakume honek zerbait eskeini nahi dio Evaristari euren alde egindako lana eskertzeko. Jakin dezala, Evaristari, Pil Pilean behintzat iristen zaiola, beste misiolari guztiei bezala. **Pil Pilean**

### **KZ Gunerako bi infomatikari behar dira**

#### **Eskatzen da:**

- Interneten erabileraren jabe izatea.
- Windows Officeko programak menderatzea.
- Ofimatikaz jakitea.
- Komunikatzeko ahalmena izatea.
- Euskara eta gaztelania menderatzea.

#### **Balaratuko da:**

- Esperientzia informatikaren munduan.
- Soraluzekoa izatea.

**Epea:** Martxoaren 9a aurretik.

#### **Aurkezpen lekua:**

Soraluzeko Udala.

#### **Epaimahaikoa:**

Eusko Jaurlaritzako teknikariak.

## Agenda

### **Martxoaren 13an**

Itxaropenatik irteera  
San Vicente de la Barquerara

**Goizeko 8:00etan**  
**Gila Zubian irtenda.**

### **hildakuak**

Avelina Vergara  
Lorenzo Zabala  
Karmen Ormazabal (Sor Bizenta)  
Pedro Cacho  
Eusebio Mendia  
Migel Andoaga  
Tomas Laskurain

### **jaiotakuak**





**Zer irizten dotsazu?****Zer iruditzen jatzuz “boteiloiak”?  
eta debekatzia?****Igone Eizagirre**  
**71 urte Jubilatua**


Ez jata ondo pentzatzen kalia edaten eta boteilekin ibiltzia. Edatekotan, tabernetan egittia da egokixena.

**Aratz Del Barrio**  
**20 urte Tabernarixa**

Ez jata normala pentzatzen kalia edatia prohibitzia, ze jaixetan be kalia edaten dou. Nik nahixao dot jendia tabernetara etortzia edatera, baina hori norberak ikusi bihar dau.

**Maialen Oregi**  
**16 urte Ikaslia**

Bakoitzak eittia dauka nahi dabena, baina ez leukie debekatu bihar. Edaten dabena arduratu biharko lirake tokixa garbi lagatziaz.

**Jon Lizarralde**  
**24 urte Langilia**

Ez dao ondo, baina tabernetan edatia karua danez jendiak merkera jotzen dau. Problemia soluzionatzeko tabernarixak, edarixen preziuak bajau biharko littueke.

**Nerea Rascón**  
**26 urte Langilia**

“Botelloiak” debekatzeko lege bat ataratzia ez jata egokixa pentzatzen, egoeria konpontzeko eskoletatik hasi biharko lirake informaziñua emoten.

**Gregorio Uribe “Sinatra”**  
**43 urte Tabernarixa**

Edateko edadia badauke berak jakin-go dabe zer ein, baina txikixauak eittia oso gaizki irizten jata. Alaba gaztiak dittudanez ondo pentzatzen jata debekatzia.

**oharra**


Arazo teknikoak dirala eta, hasieran egindako kale inkesta ezin izan dogu argitaratu. Barkatu eragozpenak.

Ugaitz Catalan eta  
Enara Agirre

**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**MENDIZABAL**

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## KZ gunea, Interneta guztion eskura



Eusko Jaurlaritzak, Euskadi Informazioaren Gizartean egitasmoaren barruan aurrera daraman Konekta Zaitetz programaren bitartez, Sorluzen ere KZ Gunea bat jarriko da. Gunea honen helburua, izenak dioen moduan, herritarrei internetera konektatzeko bidea erakustea da. Horretarako, bi tutorek zuzenduko duten 15 ordenagailuko informatika gela bat prestatuko da, Bal-

tegiatiko Gela Urdinean. 18 urtetik gorako edozein herritarrek izango du KZ Gunean emango diren ikastaroetan parte hartzeko aukera. Ikastaroez gain, gunea zabalik egongo da interneten berri jakin eta ikastaroen beharrik gabe nabigatu nahi duten guztiendako. Gunea hau, goizeko 9:00etatik 13:00era eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta gainera dohaineko zerbitzua izango da. Udaleko arduradunek, ekimen arrakastasua izango dela uste dute, "jentiandako aukera paregabia da Internet zer dan ezagutu eta atzera ez gelditeko". KZ Ikastaroetan izena eman nahi duten guztiak apirilaren 8tik aurrera eman ahal izango dute Baltegieta bertan. KZ Gunea Baltegiatiko Gela Urdinean dagoen bitartean, bertan egiteko diren ekitaldiak, Udaletxeko Saio Aretoran egingo dira.

(Informazio gehiago Udalean)

## Lubakia Ezozi Bideko trenbidean

Otsailaren 19an, arratsaldeko 13:45 inguruan, Ezozi Bideko Loraldera doan trenbidean lubakia izan zen. Babes sarea hautsi harri eta lur multzo handi bat erori zen bidera, aurrean trenbideko barandilla eta farolak zituela. Jendea ibiltzen den ordua izan arren, zorionez ez zuen azpian inor harrapatu. Udaleko aparejadorearen esanetan, "ez da erreza horrelako lurjauziak aurrikustea eta zorionez ez da ezer gertatu". Aste honetan bertan, Udalak bilera izan du lanen ardura daukan enpresako ordezkariekin eta dagoeneko erretiratu dute bidea oztopatzen zuen harri eta lur pila. Berehala ekingo diote



trenbide berria egiteko lanei eta oraingoan lur gogorra bilatzeko lanak egin eta hormigoiz sendotuko dute.

## Karakateko behatokia



Ezeren okerrik ez bada, otsailaren azken egunean jarri da Karakate gainean behatokia. Behatokiaz gain, lehen antena zegoen laugunean bi mahai jarri dira, urrreratzen diren bisitariak jateko leku aproposa izan dezaten. Egitasmo hau Elgoibar eta Sorluzeko Udalek bultzatu dute Eusko Jaurlaritzaren babesarekin batera.

## Okupazio ahalegina Maisuen Etxeetan

Udaltzaingoak berri eman zigunez, otsailaren 21ean, Maisuen etxeko 1.engo pisuko erdiko etxebizitzan sartzen ahalegindu ziren "ezezagun batzuk". "Zerraila apurtu eta barrura sartu ziran zer zeguan ikusteko". Itxura baten ez zuten gustoko bizitokirik aurkitu eta alde egin zuten. Udaltzainen hitzetan ez dauka zentzurik oin inori sartzen lagatziak, hemendik hilabete batzuetara etxe horrek saldu egin bihar dira eta". Ahalegin honen ostean, Udaltzainek hautsitako zerraila oholez erreforzatu dute, berriz inor sartu ez dadin.

## ITUR iturgintza

**Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak**

Santa Ana, 20 Behea  
Telefonoa: 943 75 12 41  
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



**BELAR RAK**  
LORADENDA ETA BELARDENDA  
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 bajo  
Teléfono 943 - 75 30 11  
Móvil 646 43 90 40  
20590 SORLUZE (Gipuzkoa)



# Antisorgailuen informazioa banatu zaie gaztetxoei



Datorren astean hasiko dira Osasun Etxean 16 urtetik gorako ikasleei mediku errebisioak egiten. Errebisio horretan; tetanoaren bakuna jarri, tentsioa hartu, pisua eta altura neurtu eta bizi ohiturengatik galdetzen zaie (erretzen eta edaten duten, kirolak egiten duten, seksu harremanetan antisorgailurik erabiltzen duten eta abar). Aurten, lehenen-

go aldiz, seksu harreman eta antisorgailuen inguruko informazioa ere emango zaie gaztetxoei. Honen arrazoia, 2.001. urtean nahigabeko haurdunaldiek izan duten igoeran bilatu behar da. 2.001. urtean %11ko igoera izan zuten era honetako haurdunaldiek eta "hori oso datu kezagarria" Osasun Etxeko erizainaren hitzetan. Itxura batean, aurreko urteetan IHES gaixotasunaren inguruan sortu zen boom informatiboa igaro eta poliki poliki seksu bidez jaso daitezkeen gaixotasunekiko beldurra ere "arriskutsuki" gutxitzen omen doa. Erizainak ordu erdiko kontsulta izango du gaztetxo bakoitzarekin eta aholku batzuk emateaz gain, liburuxka informatibo bana emango die bakoitzari; "Seksu Bidezko Gaixotasunak" eta "Antisorgailu eta Seksualitatearen Gidaliburua".

## Bi mahai "Manditturrin"



Urkia Zelai baino goraxeago dagoen "Manditturri" izeneko iturriaren ondoan jendea batzen dela ikusita, bi mahai jarri ditu Udalak, hurbiltzen diren mendi-zaletuek "hamarretakua nun jan izan deiken".

## Eraikinen mugimendu arazoak Santa kalean



Santa Ana kalean, 16. zenbakia-  
ren parean, eraikinen mugimendu arazoak izan dira. Ez dago argi, eraikinetan sortutako mugimendu eta zartaketak, kale horretan lur-azpiko zarkar ontziak jartzeko egiten diharduten zulaketen ondorioz sortu diren. Udalak eta kaltetutako etxeetako jabeek, bakoitzak bere aldetik, mugimenduen zergaitiak aztertuko dituzten arkitektoak kontratatu dituzte.

Egoitz Unamuno

## Udal kontu

# Martxoaren 7an manifestazioa

### Marxoaren 7an manifestazioa

Otsailaren 25ean egindako Gobernu Batzordean, Soledad del Bosque PSE-EEeko ordezkariaren eskariz; mehatxatuta eta bikarzainekin bizi diren alkate, zinegotzi eta pertsonen elkartasuna adierazteko, Soraluzeko herritar-  
rarak, martxoaren 7an arratsaldeko 20:00etan Plaza Barrixan egingo den kontzentrazioa eta ondoren egingo den manifestaziora deitzea erabaki zen.

### Arrizabaletako parkearen proiektua

Ondoa pasatzen den errekatoak

bezala, azkenean Arrizabaleta izena izango du Ezozki Bidearen amaieran egingo den parkeak. Udalak Haginpe enpresari agindu dio, 5.111 eurotako kostua izango duen proiektua prestatzeko lana.

### Atxuriko parkearen proiektua

Izartu programaren barruan, Atxurin parke bat egitea aurrirakusten da. Udalak Haginpe enpresari eman dio 14.423,66 eurotako gastua izango duen proiektua prestatzeko ardura. Beraz proiektua egiteko lanak martxan dira.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**Instalaciones Kalebarren S.L.**




**GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN**

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

# 2.002rako aurrekontuak onartu ditu Udalak



**Joan den astelehenean, Udal Batzarrak 2.002rako aurrekontuak onartu zituen, EAJ (5), EA(1) eta PSEren (1) aldeko 7 botuekin eta Batasuna (3) eta Alderdi Popularraren (1) ezezkoarekin. 4.167.637,36 eurotako aurrekontua izango da, 693.436.509 pezetatakoa eta aurrekontuaren %36a herriaren eraberritze eta azpiegiturretan erabiliko da.**

## “Aparteko aurrekontuak”

**A**lkatea oso pozik agertu zen 2.002rako aurrekontuen onarpenarekin; “onartu berri ditugun aurrekontuak apartekoak dira, oreka finantziario perfektudunak, hau da, mailegurik gabekoak eta gehituko nuke, berriz errepikatzen zailak izango direnak”. Era berean, diru-sarreraren alorrean lortu den igoera azpimarratu zuen Sudupek; “sarreraren alorrean, obretako baime- netarako partidek 68 milioi osatzen dituzte eta Izarturendako dirulaguntzek beste 150 milioi. Sarrera arruntaren kopuruaren batuketa egin ezker, 693 milioitan kokatzen dute sarreraren kopuru osoa. Harretaz begiratzen badiogu, konturatuko gara, aurrekontuen ehuneko 36a suposatzen duten 251 milioi, azpiegitura alorrean egindako inbertsioetara eskeiniko

direla, bide publikoen eta erakinen mantenimendua barne”. Lorpen hauen arrazoia, Gobernu Batzordearen kuadeketa onean kokatu zuen; “begibistakoa den moduan, sarrerarik gabe ez dago gasturik eta kudeaketa bikainik gabe ez genuke horren diru-sarrera garrantzitsurik izango, azken batean, sarrera hauek batzorde ezberdinetako gastuak nasaitasunez estaltzeko balio dute, Soraluzen irabazi-xederik gabe diharduten erakunde-

**“Onartu berri ditugun aurrekontuak apartekoak dira, oreka finantziario perfektua dute” A.Sudupe**

ak diruz laguntzeko eta lehen esan duan moduan, inbertsio garrantzitsuei aurre egiteko”. Ondoren, azken urteotan berak zuzentzen duen gobernu batzordeak egin duen lanaren hausnarketa egin zuen. Herriaren azpiegitura alorrean egindako aurrerapen eta lan ugariak zerrendatu zituen, Izartu Planetik jasoko diren 700 milioien eta Babes Ofizialeko 50 etxebizitzaren garrantzia azpimarratuz.

Azkenik, jardun guzti hau ez dela “kualitatearen ondorio, baizik eta, kudeaketa eraginkor eta lan garrantzitsu baten fruitu” izan dela, ohartarazi zuen.

## Batasunaren ezezkoa

Batasuna talde politikoak, ezezkoa eman zien EAJ-Eak osatzen duten Gobernuak prestatutako aurrekontuei. Ezezkoa emateko arrazoi nagusia, alkatetik Batasunak aurkeztutako “proposamen minimo” batzuk onagarriak zirela esan arren, aurrekontuetan sartu ez eta hauek aztertze behar besteko denborarik eman ez izanagatik, “aurrekontuei ezetza ematera behartuak” izan zirela adierazi zuten. Batasunak aurkeztutako proposamenen artean, Euskara Teknika-

**Aurrekontuetan “proposamen minimo” batzuk sartu ez eta hauek aztertze behar besteko denborarik eman ez izanagatik, “aurrekontuei ezetza ematera behartuak izan gara”.**

**B. Treviño**



riaren lanpostua guztiz zihurtatzea, Udalbiltzari dirulaguntza ematea, Emakumearen Aholku Batzordea martxan jartzea, hutsik dauden etxebizitzak azterketa egitea, kultura arloan bertako ohiturak berrindartzea, Polikiroldegiko frontoia "lehen bait lehen" egokitu eta zabaltzea zeuden.

#### **Alderdi Popularraren aurkako botua**

Alderdi Popularraren zinegotziak 2.002rako aurrekontuen aurka bozkatu zuen. Zinegotzi Popularraren ustetan, Gobernu Batzordeak oso denbora gutxi eman die gainontzeko talde politikoei aurrekontuak aztertzeko, herriaren parte batentzako gobernatzeko du bakarrik eta besteak beste; aparkamentu, kultura, zerga eta lan arloan ez da aurrekontu hauekin inongo aurrerapenik emango. Alderdi Popularrak kultura eta euskera arloetan aldaketak egitea proposatu zuen, AEKri eta batez ere Pil-pileani ematen zaizkion dirulaguntzak murriztu eta Gizarte Ongizateko sailera eta Sorraluzeko "Monografia Historico" berri baten ediziorako bideratzeko eskatuz. Atzera bota ziren proposamen hauek eta Alkateak sendotasunez erantzun zuen Pil-pilean, AEK eta Kulturako aurrekontuarekiko esandakoaz: "ez dago ikusi nahi ez duenarena baino itsutasun handiagorik".

#### **Alderdi Sozialistaren aldeko botua**

Alderdi Sozialistak, aldeko botua eman zien 2.002rako aurrekontuei. Hala ere, bi puntutan bere desadostasuna agertu nahi izan zuen; Pil-pilean aldizkariari ematen zaion dirulaguntzari dagokionez, herri guztiarengana "heltzen" ez dela argudiatuz. Presoengana bisitan doazen sentartekoei Ongizate Sailetik ematen diren laguntzak ezabatzea ere eskatu zuen. Gainontzean aurrekontuekin adoz samar zegoela adierazi zuen eta hargatik ematen ziela aldeko botua.

**"Ez dago ikusi nahi ez duenarena baino itsutasun handiagorik". A.Sudupe**

#### **AURREKONTUEN LABURPENA**

**2.002.Urterako Diru-Sarrera Aurrekontua 4.167.637 euro:** Diru Sarreraren alorrean, Fonfo Forala 1.703.811e, Izartu programa 1.011.561 Etxeen Obra Baimenen Gaineko Zerga 408.688e, IBI Urbanoa 255.716e, Ibilgailuen Gaineko Zerga 137.138e, Ekonomia Jardueren Gaineko Zerga 93.476e eta uraren eta zaborraren gaineko zergak dira garrantzitsuenak.

**2.002.Urterako gastuen aurrekontua 4.167.637,36 euro :**

#### **Batzordeka**

**Hezkuntza Batzordea 38.071,40 euro:** Hezkuntza Batzordeko ekimenik esanguratsuenak; Musika Eskola 17.128e, Eskola Kirola Programa 4.144e, Ludoteka 2.854e, Bertso Eskola 2.704e, guraso elkarte eta umeei zuzendutakoak dira.

**Izartu- 1.054.780 euro :** Olako Zubia 134.187.372 pezeta, Zaharren Egoitzako obrak 24.948.452 pezeta, Albesa botatzea 12.500.000 pezeta, Ezoziko Urbanizazioa 12.558.664 pezeta, Olako Zubia, Trenbideko lotura, Zaharren Egoitzarako igogailua, Loraldeko lanak Telelanerako lokala, Kontratazio, Azterketa eta proiektuetan gastatuko da Izartuko aurrekontua.

**Kultura Batzordea 102.490,60 euro :** Kultura Batzordean; Aratoste, Santiaago- Santa Ana, Andramari eta auzoetako jaiei eskeiniko zaie aurrekontuaren parterik handiena 62.805e, gainontzeko diru kopurua; Sorraluze Kultura Programa 6.010e, Udal Aldizkaria 4.808 e, Pil Pilean Kultura Elkartea 4.507e, aurrikusi gabeko gastuak 3.606e, zinea kalean 3.005e, Abesbatza 2.812e, Margo Lehiaketa 2.704e, Beti Prest 2.103, Euskal Jaia 1.803, Gaztetxea 1.803, perret-

xiko lehiaketa 1.502, Dantza Taldea 1.202e, liburuak zaharberritzeko 1.202 eta Kontrargi 811e.

**Ongizate Batzordea 108.792,41 euro :** Ongizate Batzordean; Zaharren Egoitza 48.080e, A.E.S. 23.739e, Itxaropena-Dirulaguntza 10.217e, Itxaropena-Mantenua 7.813e, Familia Laguntza 4.207e eta pertsonendako laguntza eta gaixotasunen aurkako egitasmoetarako erabiliko da aurrekontuko dirua.

#### **Euskara Biziberritzeko Plana**

**39.065,75 euro:** Euskara Biziberritzeko Planaren barruan; Euskara ikasteko dirulaguntzak 6.911e, Pil Pilean Herri Aldizkaria 6.010e, Euskarazko Kultur Eskeintza 4.868e, Udaleko Euskara Plana 5.108e, Udaleku Irekiak 3.005e eta umeen aisialdirako eta euskararen normalizaziorako ekimenetan erabiliko da aurrekontuko diru kopurua.

#### **Kirol Batzordea 22.237,45 euro:**

Kirol Batzordean; Sorraluze Futbol Taldea 6.010e, Pelota Saila 3.606e, aurrikusi gabeko gastuak 3.335e, Mendi Taldea 3.005e, Txirrindulari froga (23tik beharakoena) 2.554e, Atxa Memoriala 1.803e, Abuztuko Txirrindulari Froga 1.051e eta motozaleen topaketa, ume pelota eta boletako garaikurrerako erabiliko da aurrekontua.

#### **Nekazaritza Batzordea 52.588,56:**

San Andresko lanak (argiak, komunak) 12.020e, Gaztañerre Azoka 9.616e, Bide garbiketa 9.015, Debemen kuota 9.015, Baserrien liburua 6.010e, Iturbe Zahargo biondak jartzea 6.010e eta San Isidro Eguna 901e-erendako izango dira.

**Ingurugiro Batzordea 6.010,12 :** Ingurugiro Batzordeko aurrekontua; Mendigaineko ibilbideak egokitzen (3.005e) eta Mendiko Iturriak Konpontzen (3.005e) gastatuko da.

#### **Irabazi xederik gabeko erakunde-**

**ei dirulaguntzak 81.437,15 euro :** Aurrekontu hau Parrokia eraberritzeko 36.060e, Debegesa 30.050e, Ezoziko Santutegia eraberritzeko 11.419e, Gizarte Bermerako Moduloetarako 3.005e eta Eudelendako 901e, erabiliko da.

Egoitz Unamuno



**Electricidad LAU, C.B.**

Muntaiak, Industria Instalazioak,  
bobinatuak, automatismoak, konponketak  
Olea auzoa 3,behea  
Tel 751234

20950 SORALUZE



**Hnos. BENITO ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Maitasun gutunen III. lehiaketa Pil-pilean Kultura Elkarteak antolatuta

Aurten ere beste urteetan bezela Pil Pilean Kultura Elkarteak eta Udaleko Euskara Batzordeak elkarlanean, amodiozko gutunen lehiaketa antolatu dute.

**-Partehartzaileak:** plazentziarrak eta 14 urtetik gorakoak izan behar-ko dute.

**-Lanak:** euskaraz idatzitakoak, jatorrizkoak, inoiz argitara gabeak eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabek izango dira. Itzulpenik ez da onartuko. Txukun eta garbi aurkeztuko dira, eskuz zein makinaz idatzita. Gaia amodio gutuna izango da.

**-Aurkezteko Modua:** Gutunak sobre haundi batean aurkeztuko dira, eta bertan honakoak sartuko dira: Gutuna bera, eta egilearen goitizena daraman sobre txiki bat eta honen barruan egilearen izen abizenak, jaioteguna, helbidea eta telefono zenbakia.

**-Aurkezteko epea eta tokia:** Gutunak Soraluze Udalean aurkeztu behar-ko dira edo 27 posta kutxatilara bideratu, martxoaren 22<sup>a</sup> baino lehen.

**-Epaimahaia:** Lanak Udaleko Euskara Batzordeko 3 kidek epaituko dituzte.

**-Sariak:**

- 1.saria: 20.000 pezeta
- 2.saria: 15.000 pezeta
- 3.saria: 10.000 pezeta

· Epaimahaikoen iritziz idazlanek ez balute kalitate maila egokirik, ez da sariturik izango, baina bere kalitateagatik lanen batek mereziko balu, akzesit bat eman ahal izango zaio.

Sari Banaketa apirilaren 15ean egingo da, arratsaldeko zazpiretan Udaltxeko Saio Aretoan.

**-Bestelako Oharrak:**

· Pil-Pilean Aldizkariak, saritutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du.

· Saritu gabeko lanak hilabeteko epean jaso ahal izango dira aurkeztutako leku berean eta epe horren buruan jaso ez direnak bota egingo dira.

· Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaikoen erabakiak onartzea dakar.

## Gurasoendako euskalduntze eskolak

Euskalduntze eskola hauek Haur Hezkuntzako (3, 4 eta 5 urteko) umeen gurasoei bideratuta daude. Ikastaroa apiriletik ekainera bitartean luzatuko da, astean ordu t'erdiko bi eskola izango dira, arratsaldeko edo goizeko ordu-tegian. Ikastaro hauetan, umeek eskolan lantzen duten programa berarekin lan egingo dute gurasoek; ipuin, kantu eta oinarrizko hiztegia ikasiz. Horrela, euren seme alabei eskolako lanetan lagundu eta euskerarekin lehen kontaktua izateko aukera izango dute. Ikastaro hau elkarlanean antolatu dute Placentxi H.I.k, Udalak eta AEKk.

## Soraluzeko berriak Arratetik

Hemendik aurrera, martitetzenero, 12:40 inguruan, Soraluze berriak entzun ahal izango dira Arrate Irratitik (93.6 FM). Irratsaioak 5-10 minutu iraungo ditu eta herriko notizia eta oharrez betetako saiotxoak izango da. Irratsaioa Pil Pileanek eta Arrate Irratiak elkarlanean jarritako egitasmoa da eta Egoitz Unamuno izango da berriemai-le. Beraz badakizue, martitzenetan Arraten Soraluze!





**CRUZ  
ELECTRONICA**

Mikel Cruz

**ORDENADORE PERTSONALAK  
INPRESORAK - INFORMATIKA**

Santa Ana, 25  
Tel.: 943 75 13 35 Faxa: 943 75 3019  
Eskuko telefonoa: 630 35 82 95  
20.590 SORALUZE



**ESOZIA**  
Erretegi  
Jatetxea

B<sup>o</sup> Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

*Javier Alonso Zelaieta*  
Hortz klinika




*Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.*

Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13

**FER. S.A.**  
Industriak

*Eskulanetarako tresnak*

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



# Ugaraxo



2.002ko martxoaren 6. alean Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

## Ihauteriak



**O**tsailaren 7an eskolako ihauteriak ospatu genituen. Horretarako dantzak eta mozorroak prestatu genituen. Arratsaldeko hiru t'erdietan dantzak hasi ziren. Haur Hezkuntzakoak izan ziren lehenengoak eta 5. eta 6. mailakoak bukatu zuten. Ekitaldia amaitu zenean txokolatea eman ziguten.

Egun ona egin zuenez goiko patioan ospatu genuen. Haur hezkuntzakoak lorazainez jantzi ziren, 1. mailakoak mekanikariz eta 2. mailakoak lamiz. Hori Lehenengo Zikloan. 3. eta 4. mailakoak (Bigarren Ziklokoak, alegia) margolariz jantzi ziren. 5. eta 6. mailakoak, berriz, kontinentez jantzi ginen, baina gela bakoitza kontinente bat zen. Adibidez: 5.A koak Asia ziren, 5.B koak Ozeania, 6.A koak Afrika, 6.B koak Europa eta 6.C koak Amerika. Denok oso ondo dantzatu genuen. Hirugarren Ziklokoak, gainera, abestu genuen "Gora Jendea!" lurtar guztiak anaiak bezalakoak izan behar dugula adierazteko.

Haur Hezkuntzakoak bazkaria aretoan

eman zieten. Goiko ikasleek goiko patioan ospatu zuten. Gero Mari Karmenek musika pixka bat jarri zuen dantzatzeko eta haur eta gurasoek dantza egitera joan ziren. Oso arratsalde ona pasatu genuen. Txarrena izan zen hurrengo egunean denok ikastera joan behar ginela.





## Ugaraxo

Urtarrilaren 29 an Donostiara joan ginen 3. zikloko (5. eta 6. mailakoak, alegia)

Miramongo Zientziaren Kutxagunea ikustera. Bertan primeran pasatu genuen eta gauza asko ikasi genuen.

Lehenik ikusi genituen Elementuen Lorategian zeuden tresnak: paisaia likidoak, koloretako paisaia, elkarrizketa sekretua, paisaia zurrunbilotsuak, bidaiatzeko bultzada, etab. Denak oso bitxiak ziren eta benetan ikusgarriak. Dena den, gehien gustatu zitzaiguna orbita likidoa izan zen. Zertan datza? Ba, noria bat da, gainerakoak bezalaxe. Ura ateratzen du, badu berezitasun bat: alde banatan dauden kanaletara txandaka isurtzen du ura. Horrela, ura husteko parabolara bi bidetatik iristen da eta zorrotadak kontrako noranzkoa duten orbitetan irristatzen dira. Noriaren abiadura aldatuta, ezkerrean ala eskuinera biratzen zuten flusku kiribilak lortzen genituen.

Ondoren sartu ginen gela batean, "Lur ontzia" deitzen zena. Han ikusi genituen gauza asko: Ur zurrunbilotsuak, olatua nola sortzen diren eta nola mugitzen diren, lurrikara baten ondorioak, berotegi - efektu ospetsua, etab.



## Egun bat Miramongo Zientziaren Kutxagunean

Gero beste gela bat ikusi genuen: "Material harrigarriak": plastiko bereziak, kristal likidoak, likido magnetikoak eta fotokromikoak, material autolubrifikatuak eta, gehien gustatu zitzaizkiguna, itzal izoztuak. Material hauek gure jakimina piztu eta irudimena lanean jarri zuten.

Bukatzean, irakasle batek irakatsi zizkigun presio atmosferikoaren eragin eta ondorioak: botila baten nola sartu eta atera arrautza bat, adibidez. Gela honetan asko ikasi genuen, ondo pasatuz gainera, benetan dibertigarria baitzen.

Orokorrean esan dezakegu bisita hau oso probetxugarria izan dela guretzat, gauza asko ikusi eta primeran pasatu dugu eta.

Ah! Eta azkenik, eguraldi zoragarria izan genuenez, Kurtsala ikustera eta hondartzara jolastera joan ginen.

## Inkesta

### Errealaren egoera

1. Zer iruditzen zaizu Errealaren jokaera?
2. Uste duzu bigarren mailara joango dela?

#### Iosu Unanue

1. Oso txarra, atzeko tokixetan ez dabelako ezer egiten eta aurrekietan bez. Defentsak akats asko egiten dituzte atzekaldian eta horregaitik partidu asko galtzen ditte.
2. Ez dot uste Erreala bigarren mailara juango danik, baina batek daki.



#### Iker Perez

1. Nahiko txarra, gol gehixago sartu bihar ditte.
2. Uste dot baietz.



#### Ander Escudero

1. Oso txarra, lan gutxi egiten dabelako.
2. Bai, hurrenguen kontra galdu egin bihar dabela uste dotelako.



#### Leo Zarobe

1. Erreala oso gaizki dago eta gol gehixago sartu biharko dau.
2. Bai, igual bigarren mailara bajatuko da.





**San Blas**

1. Zer iruditzen zaizu San Blas eguna?
2. Gustatzen al zaizu?

**Javier  
Fernandez**

1. San Blas eguna oso politta da opilak jaten dittugulako. Baina gustatzen ez jatana elizara juatea da, abadiak txarla haundixa emoten dau eta.
2. Bai, asko gustatzen jata jente asko juaten dalako.

**Iosune  
Elizburu**

1. Neretako San Blas eguna oso politta da eta ondo iruditzen jata.
2. Gustatzen jata San Blas opila oso goxua dalako.

**Iñigo  
Perez**

1. San Blas eguna ondo iruditzen jata. Gainera abadiak txarla haundixa emoten dosku.
2. Bai, gustatzen jata, opilak jaten dittugulako.

**Aritz  
Ramirez**

1. Ondo iruditzen jata, baina abadiak emoten doskun txarla haundixegixa da.
2. Bai, gustatzen jata San Blas opila jatia.

**Ikusi Makusi Zein Ikusi?**

**Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?**

Zein dan baldin badakizu,  
**DEITU**

**943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora**  
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen  
abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **liburu edar bat** irabazi ahal  
izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:

**Aiane Arizaga**

**Erantzuna: Amaia Laskurain**  
**Saria IRATXO dendan eskatu**

**Esazu...(amodiozko, zorion agurrezko..... mezuak)**

Migel B. eta Iosu U.: Herri eskolako jolas tokixa konpontzia nahi dogu eta porterixa berrixak jartzia. Garazi A., Irune V., Enara P., Miren U.: Plaentxiko lau nesken partetik, mutil guapueneri, tios buenos. Gaizka A., Beñat S., Oier L.: Muxu bat Soraluzeko neska politteri. Aitor B.: Bush, irabazi gerria!. Enara O. eta Alana B.: Muxu handi bat mutil guztieri eta batez be bati. Iosu A., Aitor U., Beñat A.: Zelako neskak daren Soraluzen,. Aupa titixak, aupa ipurdixak, gora neskak!. Oier A., Leo Z. eta Iñigo G.: Jolastoki berri bat bahi dogu eta patinekin ibiltzeko U bat bebai. Iñigo: Rossini naiz eta Soraluzeko lanak bizkor amaitzia nahi dot.

# 4 *Ihauferi Albuna*

Ugaraxo



## Margolarien kantua

Plazentziako ospetsuenak,  
margolari taldea  
edozer hornitze aldera  
gu gara aproposenak.

Gora behera eskumara  
mugitzen dugu pintzela,  
behera gora ezkerrera  
zelako lan ederra !

Egiguzu deia  
harrituko zara  
edozer eskatu  
berehala duzu.

Aratuste hauetarako  
ondo prestatu gara,  
lana ta dantza nahastatuz  
dibertitze aldera.

Margoak, paleta  
baita ere txapela,  
dena eskutan hartu  
goazen marraztera.

Gora behera eskumara,  
mugitzen dugu pintzela,  
behera gora ezkerrera.  
Zelako lan ederra!

Doinua: Sanba olele..

## Mendia

# Mendi Ibilbide Neurtua martxoaren 10ean


Martxoaren 10ean, goizeko 8:00etan

Datorren hileko lehenengo domekan, Deba Goienako eta Barreneko herriek parte hartuko duten Ibilaldi Neurtua egingo da Soraluzean.

Mendi martxa hau, Gipuzkoako Federazioak eta Soraluzeko Mendi Taldeak antolatu dute elkarlanean eta dagoneko prest daukate guztia (bolondresak, kartelak..) eta orain eguraldi ona egin dezan errezatzen dihardute.

Beste herri batzuetan izan duen arrakasta zelakoa izan den ezagututa, Mendi Taldekoek 700 bat pertsona espero dituzte gutxigora behera, horietatik 600 inguru, gaztetxoak izango dira.

Ibilaldi neurtuak goizeko 8:30 – 9:00ak artean izango du hasera, ikastolako frontoi berrititik eta bi ibilaldi ezberdin antolatu dira, gogoaren eta ahlmenaren arabera aukeratzeko aukera izan dadin; bata motza eta bestea luzea, halere, bietan Urkiazelaitik pasa behar izango da eta bertan izango dute zai salda bero eta txorixoa goxoa. Antolatzaileen esanetan “lau ordu ingurutan amaitzeko modukua da ibilaldixa eta merezi dau partehartziak”.



Martxa amaittu ostean, frontoian diploma eta saritxo bat emango zaie parte hartu duten gaztetxoei.

### Herribideen berreskuraketa

Ibilaldi neurtua Soraluzean dela aprobetxatuz, aspaldian bertan behera lagata zeuden herribide batzuen garbiketa egin da. Bi izan dira garbitu diren bideak: San Andres-tik Ipiñarrietara doana eta Argate-tik Artetarako bidea.

Animatu eta aprobetxatu mendi buelta eder bat emateko!

## Judoa

### Cristina txapeldun

Joan den otsailaren 19an Hondarribin ospaturiko sektoreko txapelketan Cristinak urrezko domina lortu zuen. Garaipen honek Cristina Madrident martxoak 2 eta 3-an ospatuko den txapelketarako sailkatu du. Zorte on!!!

Xuban Catalan

## Futbola

### Emaitzak

#### KADETEAK:

- AURRERA ONDARROA 0 – SORALUZE 2
- DESKANTSOA IZAN DUTE.

#### JUBENILAK:

- AURRERA ONDARROA 3 – SORALUZE 2
- SORALUZE 3 – BERGARA 1

#### REGIONALAK:

- SORALUZE 1--INTXURRE 0
- SEGURA 2 – SORALUZE 0

## Pelota

### Hasi da Deba arroko txapelketa

Deba Arroko Txapelketa jokatzeko ari diren Soraluzetarrek bi astetako atsedena izan dute. Datozen asteetan itzuliko partidua jokatu dituzte final erdiatarako txartelak eskuratu asmoz.

Antton Alberdi eta Iker Azagirre Mungia Txapelketatik kanporatuak izan dira final laurdenetako partidua galdu ondoren.

Jon Varela eta Aitor Atxotegi Gipuzkoako Txapelketa ari dira jokatzeko. Azken partidua Ordizian jokatu zuten eta garaipena lortu zuten.

Aritz Laskurain aste batzuk partidurik jokatu gabe egon ondoren Martxoaren hasieran ikusi ahal izango dugu berriz ere txuriz jantzita. Jokatu dituen lehen txapelketak Bergara, Matiena, Sunbilla eta Zumarragoak izango dira.

## Atletismoa

### Arrate hirugarren Sevillan

Sevillan jokatu Espainiako txapelketeta absolutuetan Arratek altuera jauzian parte hartu du. Kontutan izanda bere kategorian juniorra dela meritu handiko hirugarren postu bat lortu du 1'74zmko salto eginez. Aurrera begira Arratek aste bukaera honetan Valentzian Espainiako junior mailako txapelketan parte hartuko du, ea zorte ona daukan eta emaitza on bat ekartzen digun herrira.

Herrian ere beste kirolariek denboraldi ona egiten dihardute, horien artean: Juantxo, Zigor eta Garazi A.



## Kiru Muntaiak

**Blas Elizburu Kortabarria**  
**Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.**

Errekaldia, 30  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



## Lakuesta

**Optika**

**Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59



# Lore Gallastegi

*“Bizitza da munduko gauzarik garrantzitsuena”*

Gonbitxia egin eta... ez dira ba nerekin berba egiteko prest, bost neska agertu. Aukeran, danondako orrialde bat moztxo. Beren artian: Di-da! dona dona katona egin eta Loreri tokau jako galdera xelebriori erantzutia. Hamar urteko neskatila Sinosuke zalia, lagun guztien lagun, alai eta jostalarixa Lore da gaurkoan kale kantalian loratuko dan loria.

## *-Erretratua.*

Lore Gallastegi naiz, hamar urte ditut eta pertsona alai naiz...

## *-Asko gustatzen jatzu*

Jolastia, irakurtzia, trikitrixa jotia.

## *-Koloria, erropia, lekua eta animalia*

Berdia, txandala, hondartza eta zaldixa.

## *-Eguneko momenturik onena*

Jai egunetako arratsaldiak.

## *-Disfrutatzeko modoko menua*

Makarroiak arraina eta tartia.

## *-Hiru desio*

Nota onak etaratzia, errealak irabaztia eta oporrak laster heltzia.

## *-Martxua*

Aste Santua ....laster oporrak.

## *-Munduko gauzarik garrantzitsuena*

Bizitza da munduko gauzarik garrantzitsuena.

## *-Marrazki bizidunetan onena*

Sinosuke.

## *-Ze botere izatia gustauko litzakezu?*

Hegan egittia.

## *-Noiz, nora, zeinekin eta zetara?*

Port aventurara, berdin jata noiz, lagunekin ondo pasatzera.

## *-Bokadillua*

Nozilla bokadillua.

## *-Ez da ahaztu bihar*

Eskolako gauzak.

## *-Zetan pasatzen dozu denbora asko*

Trikitrixa jotien.

## *-Ze lan aukeratuko zinuake zuretako*


Andereño lana.

## Bertso Begiz

*Sinosukeren jarraitzaileak  
ile gutxi mingainean,  
bizitzarekin hegaren doa  
bere ametsen gainean.  
Jakinmina denean,  
begi biak danean.*

*Ez datoz gero makalak!  
gure herriko Lore berriak,  
euskaldun unibertsalak.*

*(Doinua: Iparragirre abila...)  
Etxebarri*



Lore Gallastegi

## *-Goguan daukazun egun zoragarri bat*

Iazko nere urtebetetze eguna.

## *-Ezin dittuzu aguantau*

Txorradak egiten ibiltzen diranak.

## *-Afalosterako kantua*

Euskal Herrian Euskeraz.

## *-Saiatzen zara*

Lanak ondo egitten.

## *-Ezingo zinake bizi*

Familixa eta lagunik barik.

## *-Ze talde ikusiko zenduke gustora*

## *Plazentzian*

La Oreja De Bangor.

## *-Bukatze txisterik badakizu?*

Bai...Jartzen dau mutil batek malma bat mahai gainian ta kentzen dotsa hanka bat. Eta esaten dotsa: malmatxo malmatxo etorri!! eta malmia poliki poliki mutilagana!. Kentzen dotsaz pare bat hanka eta ..malmatxo etorri etorri..ta fin mutilagana. Kentzen dotsaz lau hanka ta... malmatxo etorri etorri ta hor dator malma koitxaua tatarrian, baina heldu mutilagana...kentzen dotsaz hanka guztiak...eta geldik malmi hori... Mutilan ondorixua: “malma bati hanka guztiak kendu ezker gor gelditzen da!”

Gururu



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91


Faxa 943 75 24 58

E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)

[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



**Limpiezas  
industriales**

**Limpiezas**

**Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behea

Tel.: 943 75 25 57

Faxa: 943 75 25 56

20.590 SORALUZE



## Zein naiz ni? Ea asmatzen duzun!

**A**smakizun honek arrakastarik izan dezan, zera eskatuko dizut, irakurle maitea; izan zaitez, mesedez, asmakizun igarle zintzo. Hau da, jarraitu nire instrukzioak (ez aginduak), eta ez ezazu tranparik egin. Ez dakizula asmakizunetan tranpak zela egiten diren? Hobe to, askoz hobeto horrela, tranparen azalpenak zure zintzotasuna neurtzen lagunduko digu eta. Tranpa egitea oso erreza da. Nola egiten den? Ba, asmakizun guztietan bezala, testuaren hondarreen dagoen soluziora joaz. Hori da hain juxtu irakurle ez hain maiteak asmakizun hitza irakurri eta puntuan egin duena. Baina zu, irakurle maitea, ez zara horietakoa, ez duzu tranparik egiten solitario jokoa, eta ziur nago bete betean asmatuko duzula nor naizen.

Luzamendutan ibiltzeke, zatoz hondartzara eta har ezazu okupatu gabe dagoen toaila bat. Adibidez, hor eskuman eserita dagoen emakumearen ondokoa, bai, horixe, arraiaduna. Jar zaitez ahalik eta eroso eta begiak ondo ondo zabaldu. Ez etzan baina andrá/gizón! Eguzkiak itsutu egingo zaitu bestela! Kont-

zentratu mesedez, kontzentratu. Ondo da, orain, niregandik hurbilen daudenak deskribatuko dizkizut. Bikote zelebre bat dago elkarren ondoan, baina ez elkarrekin. Biak joko kanpo, bata egunkaria esku artean baina ez dakigu nora begira, eta bigarrena irratia entzuten al-kondara eta guzti. Euren atzean, hau da, zure eskuman, laukote bat dago, bikote

bi. Ez da gaitza asmatzen nork maite duen nor. Erdiko biek bikote zoriontsu bat osatzen dute. Baztarrerekoek, ordea, bikote ez hain zoriontsu bat. Neska asper-asper eginda dago eta mutila, neronek ondo lokalizatuta daukadan hanka tarte bateri begira. Egia esan, tangadun horrek sutan jartzen nau. Horiek dira ipurmatrailak horiek! Hankatarte horrek, berau protagonista bakar, argazki propioa merezi du. Baina bueno, nahikoa da, jarrai dezagun asmakizunarekin, dakidan arren, irakurle maitea, honez gero susmatzen duzula nor naizen. Honako pista hau, azkena, erabakiorra da. Nire atzean lau lagun daude, miradoretik begira. Ezin ditut eurak ikusi, bai beraien itzalak ordea. Orain bai, garbi ikusi duzu ezta? Oso ondo, asmatu duzu, onena zara, banekien ez zenidala hutsik egingo. Amaitu da nire lana, irakurle maitea, utzi egingo zaitut. Argazki kamara hartu eta banoa beste argazki bat egitera. Baina bukatzeko, begiratu azkenengo aldiz argazkiari. Bigarren asmakizun bat jarriko dizut eta, soluziorik gabea hau. Zer dauka argazki honek berezia? Begiratu ondo jendeari, eta miradore atzean zelatan dauden itzalei, eta gogoratu Xabier Leteren hitzekin: ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan...

Alberto Schommer



### ION MURGIZU Pinturak

Empapelatuak  
Margoketa orokorrean  
eta Estukoak

Telef. 943 75 13 24  
Eskuko telef. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24 2 behea  
20590 SORALUZE

### Juan Mari Arraindegia

Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnua 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



## Argazki zaharra



**S**esmako frontoia bota zebenian pelotari barik geratu giñan Plazentzian. Eta honek onak ziran. Oin beste afiziño batzuk badaukez be, izan deila argazki hau euren pelota zaletasunaren lekuko. Belauniko (ezkerretik eskumara): Jokin Oregi, Iñigo Bolunburu, Alberto Gallastegi, Oskar Gallastegi. Zutik: Rafa Idigoras, Roman Olaizola, Jon Iñarra, Joserra Gomez, Kike Regilón, Iñaki Burunza, Jacinto Ruiz (irakaslia), Jabi Perez, Iñigo Eguren, Jon Garmendia, Alex Alberdi.

Jon Basauri

## Lehiaketa

### Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?

Zeuk nahi dozun herriko jatetxian, bi lagunendako jatordu bat irabazi zeinke

DEITTU BIZKOR  
BIZKOR  
943 75 13 04 telefonora

**Aurreko aleko irabazlia:**  
Gaizka Soraluze ( deittu )  
**Erantzuna:** Irure Txiki.



## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA



IÑAKI  
IÑARRA

HARATEGI ETA  
URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

Telefona 75 24 09

# ARRANO

*tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



## etxera

# Lonbide

taberna

*Pintxoak*  
*Ardoak, kafeak eta likoreak*



Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07

# TXOKO

# KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Goizeko 6:30-etatik  
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

## Amodio gutunen lehiaketa

*Aurkezteko epea eta tokia:*  
SORALUZeko UDALean AURKEZTU  
BEHARKO DIRA EDO  
27 POSTA KUTXATILARA BIDERATU,  
martxoaren 22a baino lehen.

*Epaimahaia:*  
Udaleko Euskararen  
Aholku Batzordeko 3 kide.

*Sariak:*

- 1.SARIA: 15.000 PEZETA
- 2.SARIA: 10.000 PEZETA

## Gaztelupen *Delicatessen*

Jazz Fussion  
Deba bailarako talde berria  
Martxoak 1 ostirala  
SORALUZEN  
Gaztelupe tabernan  
23:00etan

Gaztelupeko Hotsak

## Karakatetik

## Plaza Barrira

## jeitsiera

(oinez)  
apustuak tabernetan!!  
euro 1en truke!



Martxoak 16, 19:00-retan

## Despistatuendako azken aukera!!!



**TXOTX!!!**

**IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAREN 4A**

Afari Eguna: Martxoaren 8a  
Irteera: 19:30etan Gilan. Buelta:3:etan  
Izena emateko lekua: Gila, Arrano, Gaztelupe



**EUSKADIKO KUTXAk bere bulego berria ezagutzera gonbidatzen zaitu!**



Santa Ana 18  
Tel. 943 75 12 38  
20590 SORALUZE

**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



**Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik  
2002 urteko autoa da European**



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

**ETORMOBIL**  
Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

**307**   
**PEUGEOT**